

NAZIO INFORMAZIOA

Euskal espazio komunikatiboa sortzeko nahiak eta ezinak, Bilbon eztabaidagai

Nola sortu euskal espazio komunikatibo komuna Euskal Herrian?». Horra hor Ezker-rraberri fundazioak aste honetan Bilbon egindako jardunaldi batean mahai gainean jarritako galdera. Zenbait eragile aritu ziren galderari arlo ezberdinetatik erantzuna eman nahian.

Iñaki Irazabalbeitia Ezkerraberri fundazioko kideak ikusten duen egoera azaldu zuen saioari hasiera emateko. Aipatu zuen eguneroko informazioan erraztopa daitezkeela euskal hedabideetan tokiko informazioa baino presentzia nabarmenagoa duten Euskal Herritik kanpoko informazioak, eta, gaineratu zuenez, «egun argi dago Estatu-ko komunikabideek ezartzen dutela agenda». Azaldu zuenez, «menpekotasun handia dago inguruko subjektu politikoei eratutako espazioekiko, eta egoera hori aldatu beharra dago nazio, herri eta kultura gisa iraun nahi badugu».

Gure erreferente kulturalak eta balioak gizartera transmititu nahi baditugu, horiek erdigunean izango dituen espazio komunikatiboa beharrezkoa de-

 **KOMUNIKAZIOA** / Nerea GOTI

«Euskal Herria ez da komunikazioan oinarritutako nazio bat». Baina aukerak egon badaude komunikazio espazio komun bat eraikitzeko. Hori bai, formula, adostasuna eta borondate politikoa falta dira erakargarria den eremu bat eratzeko eta sektorea indartzeko. Eztabaida Ezkerraberri fundazioak berpiztu du Bilbon, aste honetan bertan.

la gaineratu zuen; «ahots propioa izatea», hain zuzen ere. Beste nahi bat ere plazaratu zuen: eztabaida saioa «zerbaiten abiapuntu» izatea.

Jardunaldiaren abiapuntua Josu Amezaga EHuko irakasleak jarri zuen: «euskal espazio komunikatiboa» terminoaren definizioa zehaztu eta testuinguru historikoan kokatu zuen. Azaldu zuenez, gaurkotasun handiko gaia da euskal espazio komunikatiboa sortzearen beharra, baina ez da kezka berria.

KONTZEPTUARI BUELTAKA

Amezagak kontzeptua bera argitzeko zenbait zertzelada eman zituen. Esan zuenez, «ko-

munikazio espazioak» gune bat adierazten du, non agente eta subjektu ezberdinak elkarrekin komunikatzen diren, eta zehaztu zuen bi elementu multzok mugatzen dutela gune hori: komunikaziorako erabiltzen diren bitartekoak (baliabide materialak eta bitarteko sinbolikoa den hizkuntza) eta edukiek (zeren inguruan komunikatzen garen).

Adibide gisa azaldu zuen etxean dozenaka telebista kanal jasotzen direla, teknikoki egongelaraino sartzen diren baliabideak, eta erabiltzen dituzten baliabide sinbolikoak ulertzen ditugun hizkuntzak direla. Baina norberak aukeratzen du tematikaren arabera zein kontsu-

mitu. «Guztiei osatzen dute komunikazio espazioa, baina batzuk ez zaizkit interesatzen». Espazioak hor daude, baina norberak aukeratzen du horietan sartu ala ez. Adibide horretan oinarrituta, Amezagak edukiek duten garrantzia nabarmendu zuen, baita argi utzi ere edukiak ezin direla inposatu. «Komunikazio espazioa ez da agente batzuek euren edukiak inposatzeko leku bat, nahiz eta hori ere gertatzen den. Komunikatzeko gune bat da, bere edukiak planteatzen ditu, baina batzuek indar handiagoa dute eta beste batzuek txikiagoa, eta horrek asko determinatzen du espazio horren izaera».

NAZIO IZAERA

Kontzeptua modu abstraktuan jorratetik «nazio» ikuspegira egin zuen salto Amezagak, jarritako erronkari erantzuteko eta euskal espazio komunikatibo batek daukan garrantziari buruzko hausnarketan sartzeko, Ezkerraberri fundazioak planteatutakoari helduz. «‘Euskal’ esaten dugunean komunikazio espazio nazional bati buruz ari gara», argitu zuen. Segidan zehaztu zuen komunikazio espazio nazional batek gizarte baten

SEKTOREAN ETA JENDARTEAN, ALDAKETA BIZIAK

Abandoibarrako EHuko aretoko komunikazio mikroespazioaren informazioaren profesionali eman zitzaien hitza, ofizioak horretaz guztiaz zer esan behar duen galdetzeko eta, batez ere, sektoreak hainbat parametrotan bizi dituen eraldaketak barrutik zelan ikusi dituzten kontatzeko.


Mikrofonoaren aurrean jarri ziren EitBren webguneko arduraduna den Lontxo Sainz; «El País» egunkariko Pedro Gorospe; «El Diario Vasco»-ko erredakzio buru den Lourdes Perez; «Berria»-ko Peio Urzelai, eta Iñaki Soto, GARA egunkariko zuzendaria. Bost komunikabide, hainbat bizipen partekatu eta euskal komunikazio esparruaren inguruko oso ikuspegi desberdinak.

Sainzek zabaldu zuen tartea fokua edukietan jarrita, eta azaldu zuen hasierako urratetatik egungo eskaintzara gauzak asko aldatu direla Internet bidezko informazioa jorratzeko orduan. Bitxikerietatik eduki potoloetara, notizia dena notizia da bai albistegi bai webgune bai bestelako euskarrietan, eta, hala ere, erronka bota zuen: «landu ditzagun eduki gutxiago baino askoz hobeto».

Argi utzi zuten denek ofizioa nabarmen aldatu dela azken urteetan; krisialdiak, teknologia berriek eta kontsumo berriek bultzatutako eraldaketa ugarien ondorioz. Eta aldaketa guztiak egunez egun eman dira, martxan, hausnartzeko gelditzeko astirik gabe, behar berriei erantzuna eman nahian. Hartara, prozesuan galdu diren milaka lanpostuak ekarri zituzten gogora komunikabide han-



Lontxo Sainz, EitB. L. JAUREGIALTZO | ARP



Amezagak komunikazio espazio nazional bat identifikatu zuen Euskal Herrian, hedadura eta edukiei begiratuta, eta esparru horretan kokatu zituen EITB, Noticias Taldea, «Berria» eta GARA

EHUko irakasleak azaldu zuenez, euskal espazio nazionalak ez du gailentzea lortzen, datuei begiratuta komunikazio espazio estatala baita «sendoena» Euskal Herrian

Josu Amezaga EHUko irakasleak eman zion hasiera jardunaldiari, «euskal espazio komunikatiboa» kontzeptuari buruzko zenbait azalpen eta gogoeta plazaratuz.
EZKERRABERRI FUNDAZIOA

antolaketaren ikuspuntutik eremu publikoaren euskarria duela, bertan gai publikoak eztabaidatzen direla, gizartea bera presente egoten dela eta «boterearen legitimazioa» bera ere ahalbidetzen duela.

Kulturaren birsorkuntzan komunikazio espazio propioak duen garrantzia ere nabarmendu zuen Amezagak. «'Komunikazioa' eta 'kultura' nekez bereizten» diren terminoak dira bere esanetan, gauza ezberdinak izan arren, biak batera doaz eta. Esan zuenez, hizkuntzarena da «kasu argiena», hizkuntzaren biziraupenerako beharrezkoa delako espazio komunikatiboa, baina talde nortasuna ere errazten du komunikazio espa-

diek. Profesional horien galeraz mintzatu zen Pedro Gorospe ere, eta onartu zuen urte bakar batzuen bueltan «den-dena aldatu» dela. "El País"-en kasua jarri zuen adibidetzat. Esan zuenez, ".com" eredu batera igaro dira, «non 24 orduz idazten den, produktu ezberdinentzako eta narratiba ezberdinekin». Eta presio nabarmen batekin, «hilabeteko helburuak eta bestelako emaitzak bete behar direlako».

Aldaketa abiadura bizikoa izan da sektorean eta, aldi berean, aldaketa sakonak gertatu dira jendartean. Hartara, Gorosperen hitzetan, «guztiok gaude egonkortasun espazioak bilatu

Azken urteotan lanbidean izandako aldaketak azaldu zituzten informazioaren profesionalek, behar berriei erantzuteko modu berriak aipatuz eta lanpostuen galera nabarmenduz

nahian patxada gehiagorekin hausnartu ahal izateko».

«TENTSIO KOMUNIKATIBOA»

Lourdes Perezek edukiei heldu zien eta nabarmendu zuen «bakean dagoen Euskadi» jada ez dela notizia, Kataluniak biltzen baitu orain «tentsio komunikatiboa». Euskal gatazkak informazio agendaren ikuspegitik izan duen indarra nabarmendu zuen, zenbait hedabi-



Gorospe, «El País». L. JAUREGIALTZO I ARP

detan zabaldu omen zen «*los violentos proveerán*» esamoldea gogora ekarriz. «Gure agenda fokutik atera da», gaineratu zuen. Bere iritziz, herri honek berezko agenda badu, baina, tokian tokiko informazioa lehenetsi behar bada ere, ezin zaio beste kanal batzuetatik heltzen den informazioari bizkarra eman.

Gertatu zen behin baino gehiagotan baten batek «herria» hitza aipatzen zuenean zaila suertatzea Euskal Herriko espazioaz edota espainiar Estatukoaz hitz egiten ari ote zen asmatzea.

Sektorea «krisialdi bikoitz» batek jo duela onartu zuten ka-

zio batek, «zuzenean edo beste eragile batzuen bitartez komunitate bat osatzen duten pertsonak harremanetan daudelako».

EHUko ikertzaileak nabarmendu zuenez, gaur egun –komunikabide tradizionaletan, bederen– gehien mugitzen diren edukiak aisialdiarekin lotutakoak dira. Horiek ere “gai politikoak” direla nabarmendu zuen, filmak edo iragarkiak kasu. Izan ere, eduki horiek ideologia bat birsortzen dute, «komunitate bat, ideia bat, irudi bat, nazio bat». Horregatik, Amezagaren ustean eduki horiek ere oso kontuan hartzekoak dira.

Euskal Herriko errealtatera itzulita, komunikabide tradizionalak eta, batez ere, telebistak pisu handia izaten jarraitzen dutela esan zuen Amezagak. Errealitate hori kontuan hartuta, eta sektorea hain aldakorra izanda, arauketaren aldetik ezer gutxi egin dela eta erakundee-tan hausnarketa hori ez dela egin nabarmendu zuen. Esan zuenez, «prentsan monopoliorantz goaz eta ez da ezer egin. Hor kolokan jartzen da plural-tasunaren ideia. Eta, bitartean, komunikabide propio batzuk alboratu egin dira».

«Arautzea ez da erraza, erreallitatea oso aldakorra delako»,

ohartarazi zuenez. Hala ere, euskal espazio komunikatibo bat eraikitzeke bi eredu ikusten dituela azaldu zuen. Bata, erregulazio eta muga batzuen menpean eratutakoa, instituzioen interbentzio arautua jarraituko lukeena eta Amezagak “esparrua” deitzen duena. Eta, bigarrena, era irekiago batean eratutako komunikabide sistema bat, “eremua”, erakargarriago suerta daitekeena eta komunikatzeko bestelako tresnak eta zerbitzuak eskain ditzakeena. «Baina, horretarako, komunikabide sendoak behar dira».

Hizkuntzari erreparatuta, Amezagak onartu zuen badagoe-la artean erantzunik aurkitu ez duen galdera bat: «Posible al da espazio bat eratzea hizkuntza bat baino gehiagotan?».

Espazioa eraikitzeke, Amezagak bi eredu ikusten ditu: instituzioek arautu eta mugatutako eredu bat, «esparrua». Eta modu irekiago batean eraiki daitekeen «eremua»

Bigarren ereduaren inguruan zehaztu zuen posible dela komunikabide sistema bat eratzea eta erakargarri bihurtzea, «baina horretarako komunikabide sendoak behar dira»

Hainbat komunikabidetako profesionalak osatutako mahaia, Pili Kaltzadak gidatutako eztabaidan.
Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS



zetariek, eta «kazetaritza erabilgarria kazetaritza jasangarria» dela defendatu zuten.

Azken hausnarketa horri tiraka, Peio Urzelaik adierazi zuen «globala eta tokikoa» uz-tartzea baloratzen duela, baina binomio horretan «oreka» bilatzea ere beharrezkoa dela. Proiektuen jasangarritasuna ere aipatu zuen, bere komunikabidearen egoerara salto egin-ez, eta kontatu zuen harpidet-zak «nabarmen» hazi direla “Berria”-n, laguntzen bitartez jasotakoa diru sarreraren %16 baino ez dela nabarmenezko. Etorkizunera begiratuta, Urze-lairen iritziz, «funtsezkoa» da

aldatzea eta berritzea, eta «ge-ro eta azkarrago» egin behar dira bi gauzak horiek.

KONTUAN HARTZEKO EGOERAK

Krisialdiaren eta ereduaren alda- keten artean murgilduta dago- en euskal espazioaren erdian «oso kontuan» hartu behar di- ren egoera batzuk jarri zituen mahai gainean Iñaki Soto GA- RAKo zuzendariak. Merkatu emaitzak eta sektorearen arazo komunak ondoan gogoratu zuen GARAK berak hamahiru urte daramatzala konkurtso le- ge baten menpe “Egin” egunka- riaren itxierak eragindako zor ekonomikoaren ondorioz.



Lourdes Perez, «El Diario Vasco».

Gogora ekarri zuen, era bere- an, 30 urte igaro direla 1987an egin zen irriti lizentzien azken lehiaketatik eta erakundeek ez diotela oraindik egoera horri erantzunik eman, erregulazioa eskatzen duen sektore batean. Eta zehaztu zuen 30 irriti li- zentzia baino gehiago daudela oraindik Lakuako Exekutiboak zabaldu beharko lituzkeen es- leipenen zain, urte askoren atzerapenarekin.

Etxe barrura begira, goraipa- tu zuen profesionalen «boron- date boluntarioa» komunitate baten sorreran, eta nabarmen- du zuen behar berriei erantzut- eko hainbat bitarteko jarri di-



KASU KATALANA: ERAKUNDEEN LAGUNTZA ETA, KULTURA ETA INFORMAZIOA, ZERBITZU

Euskal espazio komunikatiboa hizpide, Ezkerraberri fundazioak Euskal Herritik ez oso urrun dagoen Kataluniako kasura jo zuen, han gauzak zelan egin diren ikusteko. Ekarpen freskagarria izan zen Germa Capdevilak egindako deskribapen teorikoa. “Esguard” astekariko editorea da Capdevila, hau da, iPad gailuentzako katalanezko lehen astekariko editorea. Bere hitzaldiaren sarreran azaldu zuenez, komunikazio espazio bat ez da hizkuntza soilik, baina «hizkuntza ia dena» da. Hala, Kataluniako hizkuntza errealitatea marraztu zuen: hizkuntza arloko murgiltze politiken ondorioz, egun katalan hitzun osoak dira 50 urtetik beherakoak, eta gainontzekoen artean ere badaude katalan eta gaztelarazko kontsumoak egiten dituztenak. Are gehiago, esan zuenez, katalanez edo gaztelaniaz hitz egiten duten medioetan “herria” edo “gobernua” hitzak aipatuta, Kataluniaz edota Espainiaz hitz egin dezakete. Azaldukoaren arabera, maila politikoan kontu handiz jokatu da Katalunian hizkuntza unionisten eta independentisten arteko muga banatzaile bat izan ez dadin.

Laguntza publikoetan beste gako bat ere badagoela aipatu zuen. Nabarmendu zuenez, kultura txikiek besteekin lehiatzeko laguntza sistema bat behar dutela ulertzea «irabazitako batailetako bat» izan da. Gaineratu zuenez, laguntzen sistema katalanak gero eta gehiago lehenesten ditu katalanezko

edukiak eta sektorearen profesionalizazioa, eta ez hainbeste, berriz, hedabideen hedadura.

Zenbait adibide mahaigaineratu zituen Capdevilak eta aipatu zuen eduki berrien sorreran teknologia berriek izan duten eragina, batez ere aisialdiarekin lotutakoetan. Jarritako adibideen artean kasu berezi bat aipatu zuen: nerabeei zuzendutako Adolescents.cat ataria. «Sektore zailenetako bati zuzenduta» izanagatik, 18 urtetik beherakoen artean lider dela aipatu zuen, «Espainiatik datozen beste proposamenen aurretik». Capdevilaren esanetan, komunikabide digital horrek lortu du hizkuntza gazte sektore horrentzat faktore erakargarria izatea eta eduki anitzak eskaintzen ditu, horoskopoen informaziotik Generalitateak kudeatzen duen 24 orduko psikologia eta sexualitate kontsultategira bitarte. Beste berezitasun bat ere badauka atariak: ez da publizitatetik bizi, merkatu estudioetatik baizik. Adibide bat jarri zuen: RAC kezkatuta zegoen gidatzeko baimen kopuruaren jaitzieragatik eta webguneari agindu zion horren gainera azterketa bat egiteko. «Joko batzuk baliatuz datuak bildu zituzten eta gazteen lehenetasunen erradiografia bat osatzea lortu zuten».

Beste esperientzia bat ere aipatu zuen Capdevilak, Iquiosc.cat izeneko atari digitalarena. Bertan, 9,90 euroko hilabeteko tarifa baten truke erabiltzaileak 230 hedabide baino gehiagotan sartzeko aukera dute.

rela nazio espazio komunikatibo baten ikuspegitik; NAIZ hedabidea, eta barnean biltzen dituen tokiko informazio bereziko IRUINDARRA eta BILBOTARRA leihoak aipatuta.

Bestelako segmentuetan emandako urratsak ere nabarmendu zituen Iñaki Sotok; komunikazio proiektu beraren barruan argazki agentzia, Mediabask, irratia... izatea, edota beste euskal hedabide batzuekin errotatiba partekatze apustua. Sotok faltan sumatu zuen instituzioen baitan eman beharreko hausnarketa, eta azaldu zuen espazio komunikatibo bat nahi baldin



Peio Urzelai, «Berria». JAUREGIALTZO I ARP

Iñaki Soto GARako zuzendariak instituzioen «laguntza ez klientelarrak» defendatu zituen: «Inbertsioa behar du sektoreak, ez gastu arruntetara zuzendutako laguntzak»

badugu sektorearen artikulazioan oinarritu behar dela, eta ETBk zentraltasuna izan behar duela.

Pili Kaltzada kazetariak gidatutako eztabaidan, erakunde publikoek komunikabideekin nola jokatu beharko luketen aztertu zuten. Sotok argi utzi zuen orain arte sektorea ez dela existitu politikarientzat, eta «laguntza ez

klientelarrak» defendatu zituen. «Inbertsioa behar du sektoreak, ez gastu arruntetara zuzendutako laguntzak».

Beste ikuspuntu bat azaldu zuen “El Diario Vasco” egunkari ordezkariek, erregulazioa edukien kontrolarekin lotu baitzuen. Testuinguru horretan kokatu zuen komunikabide katalanek batera ateratako editoriala.



Iñaki Soto, GARA. JAUREGIALTZO I ARP